



Arartekoaren 2024R-2681-23 Ebazpena, 2024ko martxoaren 21ekoa. Honen bidez, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari gomendatzen zaio kexagileari aitor diezaiola 2023-2024 ikasturtean lanaldi osoko lanpostu huts bat betetzeko duen eskubidea dagozkion ordainsari, kotizazio eta gizarte-aurreikuspeneko ondorio guztiekin, eta aitor diezaiola baita ere 2024-2025 ikasturtean bere lehentasun-eskubidea egikaritzeko ikastetxea hautatzeko duen aukera.

Aurrekariak

1. Herritar batek (...) Arartekoari esku hartzeko eskatu zion 2023-2024 ikasturte hasierako irakasleen lanpostuen adjudikazioarekin lotuta. Kexagileak adjudikazio horretan parte hartu zuen, hautagaien zerrendan baitzegoen irakasleen behin-behineko beharrak estaltzeko.

Kexa-idazkiaren arabera, 2022-2023 ikasturtean zehar, kexagileak CPI (...) IPI ikastetxean Musika ikasgaiko irakasle gisa jardun zuen, Gasteizen, eta lehentasuna zuen 2023-2024 ikasturtean ikastetxe horretan jarraitzeko eta espezialitate horri eusteko. Beraz, zuzendaritzak egindako plangintzan bertan jaso zen XXXXX kodea duen lanaldi osoko lanpostu hutsean berak jarraituko zuela.

Alabaina, 2023ko uztailaren 12an XXXXX lanpostu hori merezimendu-lehiaketa bidezko ezohiko egonkortze-prozeduran parte hartu zuen beste hautagai bati adjudikatu zioten. Hala ere, antza denez, pertsona horrek ez zituen egiaztatu prozesuan parte hartzeko baldintzak¹.

Bere aldetik, kexagilea YYYYY lanpostuaren adjudikazioduna izan zen behin-behinean, musikako espezialitatean, lanaldi erdian, Gasteizko IES (...) BHI ikastetxean².

Horregatik, egun horretan bertan, pertsona horrek erreklamazio bat aurkeztu zuen, eskatzeko XXXXX lanpostua esleitu zitzaionak epeen barnean baldintzak betetzen zituela egiaztatzen ez bazuen, berak lanpostu horretan lan egiteko aitortua zuen lehentasunezko eskubidea errespetatu zedin.

¹ Ebazpena, 2023ko uztailaren 12koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Ebazpen honen bidez 2023-2024 ikasturte hasierako esleipena behin betikoz ebazten da, honako prozesu hauetarako: meritu-lehiaketan hautatuak izan diren pertsonen esleipena.

² Ebazpena, 2022ko uztailaren 12koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Ebazpen honen bidez 2023-2024 ikasturte hasierako esleipen-prozesua behin-behinekoz ebazten da, irakasleen ordezkogaien zerrendako pertsonen dagokienez.



2023ko uztailaren 19an, ordezkapenak egiteko langile-hautagaien adjudikazioen behin betiko zerrenda argitaratu zen³, kexagileari YYYYY lanpostuaren adjudikazioa mantendu zitzaion eta erreklamazioa berariaz ezetsi zen.

Aurrerago, lehen erabaki horiek hartu eta gero, 2023ko uztailaren 26ko Aginduaren bidez⁴ XXXXX lanpostuaren adjudikaziodunak lanpostuak egonkortzeko hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskubideei uko egin ziela jakinarazi zen, eta horrek ere ondorioz gabe utzi zuen, 2023ko abuztuaren 17ko ebazpenaren bidez⁵, lanpostu hori pertsona horri esleitzea.

Azkenik, XXXXX lanpostua adjudikaziorako eskaini zen 2023ko abuztuaren 31n Ordezkagunea plataformaren bidez (orain ZZZZZ kodea du lanpostuak), baina erakunde honek ez du jakin azkenean adjudikatu ote zen ala ez, eta, baiezko kasuan, zein izan zen adjudikazioduna. Nolanahi ere, zera ondorioztatu behar da: baldin eta lanpostua adjudikatu izan balitz, berau betetzeko lehentasun-eskubiderik ez zuen hautagai bat izan zela adjudikazioduna. Beraz, zentzu horretan, adjudikaziodunak kexagileak baino eskubide gutxiago zituen 2023-2024 ikasturtean lanpostu hori betetzeko.

Kexagileak adierazi zuen ez dagoela ados adjudikazio-prozesu horretan administrazioak izan zuen jarduteko moduarekin; izan ere, kexagileak lanaldi osoko lanpostu huts bat betetzeko lehentasun-eskubidea aitortuta izan arren, lanaldi erdian jarduten hasi behar izan zuen beste ikastetxe batean, lehenengo lanpostu hori berak baino eskubide gutxiago dituen beste bati adjudikatu zitzaiolako.

Horrez gain, zera azpimarratu du: egoera horren berri izan zuenean, eta oraindik ere zuzentzeko astia zegoenean (adjudikazio-prozesuan ez zelako aurrera egin), hezkuntza-administrazio horri jakinarazi ziola eta lanpostu hori berari esleitzeko eskatu zuela baldin eta indarrik gabe uzten bazen lanpostuak egonkortzeko hautaketa-prozesuan eskatutako betekizunak betetzen ez zituen pertsona bati egindako adjudikazioa.

³ Ebazpena, 2023ko uztailaren 19koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Ebazpen honen bidez 2023-2024 ikasturte hasierako esleipena behin betikoz ebatzen da, honako prozesu hauetarako: ordezkogaien zerrendako pertsonak.

⁴ Agindua, 2023ko uztailaren 26koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez argitara ematen baita, batetik, Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko prozesuan hautatutako pertsonen zerrenda osagarria, eta, bestetik, uko egiteagatik edo deialdian eskatutako baldintzak ez betetzeagatik karrerako funtzionario izendatzeko eskubideak indargabetzen dituzten hautatuen zerrenda.

⁵ Ebazpena, 2023ko abuztuaren 17koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez ondorioz gabe uzten baita 2023-2024 ikasturte hasierako esleipen-prozesuaren esleipena, prozesuari uko egin dioten edo alegatutako merezimenduak edo baldintzak betetzen ez dituzten merezimendu-lehiaketako salbuespeneko pertsonen dagokienez.



Azkenean, inguruabar hori bete zen, eta horren berri eman zen 2023ko uztailaren 26an adostutako eta 2023ko abuztuaren 17an argitaratutako egintzan. Hala ere, nahiz eta 2023ko abuztuaren 31ra arte ez zen adjudikazio-prozesuko beste jarduketarik egin, kexagilearen eskaera ez zen aintzat hartu.

2. Arartekoak Hezkuntza Sailaren laguntza eskatu zuen azaldutako inguruabarren gaineko informazioa eman zezan, esan zezan ea hezkuntza-administrazioa prest zegoen kexagileari esleitutako lanpostuaren adjudikazioa berrikusteko, edo bestela, kexagileak lanaldi osoko lanpostu hutsa betetzeko duen eskubidea aitortu zezan legozkiokoen ordainsari, kotizazio eta gizarte-aurreikuspeneko ondorioekin, eta kexagileari aitor ziezaion 2024-2025 ikasturtean CPI Samaniego IPI eta IES Ekialdea BHI ikastetxeetan lan egiteko zuen lehentasun-eskubidea egikaritzeko aukera.

3. Hezkuntza Sailak bidalitako txostenak argudio hauek eman zituen laburbilduz:

- Araudiarekin bat etorritik, ezohiko egonkortze-prozesuan hautatutakoek lanpostuen adjudikazio-prozesuan parte hartzen dute karrerako funtzionarioen eta praktikak egin behar dituzten langileen atzetik, baina lehentasuna dute behin-behineko beharrak estaltzeko zerrendako hautagaiekiko, 2023-2024 ikasturtean lehentasunezko adjudikazio-eskubidea dutenak barne.
- XXXXX lanpostua araudian xedatutakoarekin bat etorritik adjudikatu zen, lanpostuak hautatu zirenean eskuragarri zeuden datuak eta behin-behineko eta behin betiko adjudikazio-datuak kontuan hartuta.
- Hezkuntza sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Agindua 2023ko abuztuaren 17an argitaratu zen. Horren arabera, XXXXX lanpostuaren adjudikaziodunak jada ez zuen karrerako funtzionario izendatua izateko eskubiderik, hautapen-prozesuko eskubideei uko egin zielako; horrenbestez, lanpostu horrekiko eskubideak galdu zituen. Hala, lanpostua hutsik geratu zen eta geroago esleitu zen.
- Kexagilearen nahia onetsi izango balitz, prozesu osoa beste behin gauzatu beharko litzateke legozkiokoen lanpostua adjudikatzeko, eta kexagileari adjudikatutako lanpostua aldatzeaz gain, adjudikazio berri horren eraginpeko guztien lanpostuak aldatu behar izango liriteke, segurtasun juridikoa arriskuan jarritz.





- Kexan hizpide dugun kasua ez da ezohiko egonkortze-prozesuaren aldaketen ondorioz lanpostuen adjudikazio-prozesuan eragin duen bakarra, eta horietako inon ere ez dira onartu jarritako erreklamazioak.
- Efektu guztiekin lanaldi osoko lanpostu hutsa betetzeko eskubidea aitortzearen nahiari dagokionez, kexagileak berak eskatu zuen lanaldi erdiko lanpostua hala nahi izan zuelako, eta segidan, adjudikatu ez zitzaizkion lanaldi osoko beste lanpostu batzuk ere eskatu zituen.
- 2024-2025 ikasturterako lehentasun-eskubidea egikaritzeko ikastetxea hautatzeko aukerari dagokionez, indarreko araudiak eskubide hori lanpostuaren betearazpen-ikastetxeari ematen dio, eta ez beste ikastetxe bati.

Gogoetak

1. Hezkuntza sailburuaren 2023ko otsailaren 24ko Aginduaren bitartez⁶ xedapen gehigarria gehitu zitzaion Hautagaien zerrendako kideen ikasturte hasierako adjudikazioa arautzen duen 2022ko ekainaren 16ko Aginduari⁷.

Xedapen gehigarri hori merezimenduen lehiaketa bidezko ezohiko egonkortze-prozesuan hautatutako langileen lanpostu-adjudikazioen ingurukoa da, eta espediente honetan hizpide dugunerako, hauxe ezartzen du:

“HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Salbuespenezko egonkortze-prozesuan (merezimendu-lehiaketa) hautatutako langileen esleipen-lehentasuna.

2022ko irailaren 22ko Aginduaren bidez deitutako egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako pertsonen lehentasuna izango dute 2023-2024 ikasturtearen hasierako esleipen prozesuan lanpostuak eta estaldura premiak esleitzerako orduan, prozesuan parte hartzen duten aldi baterako beharrak betetzeko zerrendako hautagaien aurretik, 2023-2024 ikasturterako lehentasunezko esleipen-eskubidea duten langileak barne. Egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako langileen plazak eta estaldura premiak karrerako funtzionarioak eta 2023-2024 ikasturtean praktikak egin behar dituzten langileak esleitu ondoren esleituko dira beti.

Salbuespenezko egonkortze-prozesuan hautatutako pertsonen ez dute parte hartuko agindu honen 13. artikuluan esleipen-lehentasunari buruz jasotako eskubidearekin. Salbuespenezko egonkortze-prozesuan hautatutako pertsonen esleipena praktiketako langileen prozeduraren antzera egingo da, eta espezialitate bakoitzean egonkortze-prozesu berezian lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko dira, handienetik txikienera. Berdinketa gertatuz gero,

⁶ Agindua, 2023ko otsailaren 24koa, Hezkuntzako sailburuarena, 2022ko ekainaren 16ko Agindua aldatzekoa, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetako aldi baterako irakasleen beharrak betetzeko zerrendako hautagaiei ikasturte-hasieran lanpostuak esleitzeko prozedura.

⁷ Agindua, 2022ko ekainaren 16koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita aldi baterako irakasleen beharrak betetzeko zerrendako hautagaiei ikasturte-hasieran lanpostuak esleitzeko prozedura Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan.



eskubide handiagoa izango du argitaratutako behin betiko azken birbaremazio-zerrendetan puntuaziorik handiena lortu duenak.

(...)

Salbuespen gisa, eta 2023ko irailaren 1a baino lehen salbuespeneko egonkortze-prozesuan hautatutako pertsonen zerrenda argitaratu ez bada, hirugarren xedapen gehigarri honen lehenengo paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da 2024-2025 ikasturte hasierako esleipenetan.»

2. Bestalde, hautagaien zerrendako kideen lanpostu-adjudikazioari dagokionez, 2022ko ekainaren 16ko Aginduaren 4. artikulua prozesuan parte hartzeko baldintzak azaltzen ditu. Hala, hauxe ezartzen du:

“Esleipenean borondatez parte hartuko dute, prozesuan parte hartzeko deialdian ezarritako eskabidea aurkezteko epea hasi baino 5 egun baliodun lehenago, aldi baterako beharizanak estaltzeko hautagaien zerrenda orokorrean hurrengo ikasturterako 1. kidesuneko egoeran lanerako prest dauden pertsona guztiek.

Eskabideak aurkezteko epean, parte-hartzaileek zerrenda pertsonalizatua izango dute, eta, bertan eskatu ahal dituzten lanpostu eta estaldura-premiak adieraziko dira, lanpostuen ezaugarrien arabera eta hautagaiak erabilgarri dauden zerrenden arabera.”

3. Araudi hau hitzez hitz jasotzearen bitartez, Arartekoak azpimarratu nahi du lanpostu bat adjudikatzen denean adjudikaziodunak nahitaez bete behar dituela lanpostua betetzeko baldintzak, eta horretarako prestakuntza teknikoa izan behar duela.

Zehazki, irakaskuntzaren funtzio publikora ezohiko egonkortze -prozesuan parte hartuta sartu zirenek bete behar zuten baldintza zen prozesu horretan baliozkotasunez hautatuak izatea lanpostuari esleitutako espezialitatean eta, horrez gain, lanpostuen zerrendetako hizkuntza-eskakizunak edo bestelako baldintzak bete behar zituzten baita ere.

Zerrendan zeudenek bete beharreko baldintzak ziren lanpostuari esleitutako espezialitatean prestasun -egoeran egotea eta lanpostu jakin horretako gainerako baldintzak betetzea.

4. Beste espediente batzuk izapidetzean azaldu dugun moduan, Ararteko erakundeak badaki irakasleen lanpostuen adjudikazio-prozesuetan faktore asko egon ohi direla eta, horrenbestez, prozesu hori zorrotza eta zehatza izan behar dela.

Baina, hain zuzen ere prozesu konplexua delako, erakunde honek uste du hezkuntza-arloko administrazioak baliabide egokiak ezarri behar dituela, ahalik eta akats gutxien egiteko eta partaideen eskubideak ez kaltetzeko haien



erantzukizunekoak ez diren edo jarduteko aukerarik ematen ez dieten gertaerak jazo izan direlako.

5. Ikasturte hasierako adjudikazio-prozesuan hainbat kolektibok parte hartzen dutenez, azken finean lanpostuen adjudikazioen segida bat da eta kolektibo bakoitzaren eskubideen arabera antolatuta dago.

Modu horretan, parte-hartzaileek epe berbera dute intereseko lanpostuak eskatzeko, eta Hezkuntza Saila segidako adjudikazioak argitaratzen joaten da; horietan, aurreko kolektiboetako kideek hautatu ez dituzten lanpostu libreak esleitzen zaizkie hurrengo kolektiboari.

Zehazki, 2023-2024 ikasturterako hezkuntza-administrazioak jendaurrean erakutsi zuen egutegiko epe bateratua ekainaren 30etik uztailaren 3ra artekoa zen.

Ondoren, egutegiak kolektibo parte-hartzaileen behin-behineko adjudikazioen, erreklamazioak aurkezteko epeen eta behin betiko adjudikazioen segidako egintzak xehatzen zituen; modu horretan, hautagaien behin betiko adjudikazioak argitaratzeko eguna uztailaren 21a zen, eguerdiko 14:00etan, baina azkenik, uztailaren 19ra aurreratu zen. Orduetik aurrera ez zen egintza gehiagorik egin prozesuan abuztuaren 29 eta 31ra arte; egun horietan ebatzi zen adjudikazioaren azken fasea.

6. Hezkuntza Sailak 2023-2024 ikasturte hasierako adjudikazio-prozesurako egin zuen egutegiak ez luke inolako arazorik izango, baldin eta kolektibo parte-hartzaileak eta parte-hartzaile bakoitzaren ezaugarriak ezin hobeki definituta eta azalduta egongo balira.

Kasu honetan, hala ere, enplegua egonkortzeko ezohiko hautaketa -prozesuaren azken zatiak aldaketa handiak izan zituen hautatutakoekin zerrendarekin lotuta, deialdiko baldintzak betetzen ez zituztelako edo zenbaitek borondatez lanpostuei uko egin zitelako.

Hala, 2023ko ekainaren 23an Hezkuntza Sailak jendaurrean agiri bat erakutsi zuen⁸. Horren bitartez jakinarazi zuen hautatutakoekin behin betiko zerrenda aldatu egin zela eta aurrerantzean aldaketa gehiago izango zituela.

⁸ "Informazio-oharra, hautatutako pertsonen behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioak jartzeko epean planteatutako gaiak buruzkoa"



Ohar hori sakonago azaldu zuten⁹ 2023ko ekainaren 30ean eta ohar berri bat argitaratu zuten¹⁰ eduki honekin:

“Hautatutako behin betiko pertsonen zerrendan eskaeran alegatutako hizkuntza-eskakizunaren akreditazioa EAeko Hezkuntza Sailean jasota ez duten pertsonak agertzen dira (I. Eranskina argitaratzen da, pertsonen zerrendarekin). Kasu horretan, hautatutako behin betiko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 20 egun naturaleko epean, alegatutako hizkuntza-eskakizuna dutela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Aurkezten ez badute, karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak galduko dituzte.”

Ezohiko egonkortze-prozesuan hautatutako langileen behin betiko zerrendak 2023ko ekainaren 29an argitaratu zen¹¹ 2023ko ekainaren 21eko Aginduaren bitartez onetsi ziren; horrenbestez, hautatutako langileek, egun horretatik aurrera hogeitun egun naturaleko epea izan zuten deialdiko baldintzak betetzen zituztela frogatzeko.

Aurrekarietan esan bezala, 2023ko uztailaren 26an ezohiko egonkortze-prozesuan hautatutako langileen behin betiko zerrendak aldatzen zituen ebazpena eman zen; bertan, eranskin luze bat zegoen lanpostuei uko egin zitzelako edo deialdiaren baldintzak betetzen ez zituztelako hautapen-prozesuko eskubideak galdu zituztenen izenekin.

Ebazpen hori 2023ko abuztuaren 17an argitaratu zen eta egun horretan ondorioz gabe utzi ziren baita ere hautagai horiei esleitu zitzaizkien lanpostuen adjudikazioak.

Hori guztia gertatu zenean, adjudikazio-prozesua geldirik (uztailaren 19tik) eta abuztuaren 31ko adjudikazioaren bitartez bukatzeke zegoen.

7. Arartekoak bidali zuen laguntza-eskaerari erantzunez Hezkuntza Sailak bidalitako txostenak dio XXXX eta YYYYY lanpostuen adjudikazioa araudian xedatutakoa betez eta adjudikazio-unean eskuragarri zeuden datuen arabera egin zela.

Hala ere, kontuan izan behar da hautaketa-prozesuan hautatuak izan ziren langileen behin betiko adjudikazioa 2023ko uztailaren 12an egin zela eta langile hautagaien behin betiko adjudikazioa 2023ko uztailaren 19an; bien bitartean, Hezkuntza Sailak 2023ko ekainaren 23tik iragarri zuen hautaketa-prozesuan

⁹ “Egonkortze-prozesuko hautatutako behin betiko zerrendari buruzko informazio-oharra, ikasturte hasierako esleipen-prozesuari begira”

¹⁰ “Hautatutakoei eta hizkuntza-eskakizunei buruzko informazio-oharra”

¹¹ Agindua, 2023ko ekainaren 21ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez argitara ematen baitira Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako izangaien behin betiko zerrendak.



aukeratutako langileen behin betiko zerrenda aldatu egin zela eta aldatzen jarraituko zuela, hautagaiak eskubideak galtzen zihoazen bitartean.

Horrenbestez, hautaketa-prozesuan aukeratutakoen kolektiboaren adjudikaziorako oinarria izan behar zuen egitatezko elementu nagusia (zehazki, zeintzuk ziren kolektibo horretako parte-hartzaileak) perfektuki zehaztu eta definitu gabe egoteaz gain, oraindik bukatzeke zegoen egiaztapen-prozesu bati lotuta zegoen.

Modu horretan, Arartekoak uste du hautaketa-prozesuan aukeratutako langileen adjudikazioak ezin zuela bermatu pertsona horiek zuzen aukeratuak izan zirenik espezialitate jakin baterako prozesuan, eta hori ezinbestekoa zen adjudikazioa zuzen gauzatua izan zedin.

Alderantziz, deialdiaren baldintzak egiaztatzeko prozesua bukatu gabe zegoela adjudikazioa egiteak (eta Hezkuntza Sailak jakinik hautatutakoen zerrendak nabarmenki aldatuko zirela) bakarrik emaitza txarrak izan zitzakeen, prozesu horretan parte hartu behar ez zutenei esleitutako lanpostuak ezin izan baitzitzaizkien interesa izan zezaketen kolektibo bereko beste batzuei adjudikatu; gainera, orduan egin ziren egintzak aldi berean gauzatu zirenez, adjudikazioko hurrengo kolektibokoei ere ezin izan zitzaizkien lanpostuok adjudikatu.

8. Bestalde, hautaketa-prozesuan aukeratutako langileen kolektiboaren inguruko zalantzak eta 2023ko abuztuaren 29ra arteko denbora kontuan hartuta, erakunde honen galdera da zergatik ez ote zen adjudikazio-prozesuaren egutegia egokitu (lanpostuen esleipena hautaketa-prozesutik kanpo geratu zirenak zehaztu eta gero gauzatu); hala, ahalbidetuko litzateke adjudikazioa errealitateari egokituago egotea eta adjudikazio-prozesua askoz ere berme gehiagorekin egingo litzateke.

Egiaz, agiri honetako aurrekarietan azaldutako egitateen sekuentzia ikusirik, hautaketa-prozesuan aukeratutako langileen adjudikazioaren behin-behineko ebazpena 2023ko uztailaren 7an argitaratu zen, eta hautagaien adjudikazioaren behin betiko ebazpena 2023ko uztailaren 19an. Egintza batetik bestera, beraz, hamabi egun igaro ziren.

Hezkuntza Sailak hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskubideak galdu zituztenen zerrenda 2023ko uztailaren 26an eman zuen. Hautaketa-prozesuan aukeratutako langileen eta hautagaien adjudikazioa egiteko egun horretara arte zain egon izan balira, kolektibo horien adjudikazio-egintzak arazorik gabe gauzatuko lirateke. Modu horretan, adjudikazioaren emaitzak ez lituzke kontuan hartuko prozesutik kanporatutako hautagaiak, eta ondoren zuzendu beharrik ez litzateke egongo; bitartean, gainerakoek beren intereseko lanpostuak lortzeko





aukera izango lukete, lanpostu horiek ez liratekeelako esleituko adjudikazio-prozesuan parte hartu behar izan ez zutenei.

Aurrekoa horrela izatea posible izan zen, ikusi dugun bezala, bakarrik hamabi egun behar izan baitziren eta prozesu errealean hilabete eta hamar egun igaro ziren inolako egintzarik egin gabe, 2023ko uztailaren 19tik abuztuaren 29ra ez baitzen jarduketa handirik egin, bakar-bakarrik ebazpen bat argitaratu zen, jakinarazteko ondoriorik gabe uzten zela hautaketa-prozesutik kanporatuak izan ziren 81 pertsonen adjudikazioa.

Aurreko guztiarengatik, Arartekoak uste du Hezkuntza Sailak adjudikazio-prozedura honetan jardun zuen moduak kexagilea kaltetu zuela, eta kalte hori ekidin ahal izango litzatekeela kasuaren inguruabar guztiak aintzat hartu izan balira eta adjudikazio-prozesua epe egokiagoetan eta datu errealekin bat etorritik gauzatu izan balitz, administrazioak epe motzean ziur aldatuko zirela zekien datuak ontzat eman beharrean.

9. Hezkuntza Sailaren txostenak dio kexagilearen nahia baiesteko eta nahi zuen lanpostua esleitzeko (berau adjudikatzeko lehentasun-eskubidea zuen) prozesu berri bat gauzatu izan beharko litzatekeela, eta horrekin, egindako adjudikazio guzti-guztiak aldatu izan beharko liratekeela.

Hala ere, egia dena da kexagileak eskatu zuen lanpostua libre geratu zela eta Ordeztagunea plataforman eskubide gutxiago zituen bati adjudikatu zitzaiola. Horrenbestez, ez zen beharrezkoa berriro ere prozesua egitea esleipenerako lehentasun-eskubidea zuenari lanpostu hori esleitzeko (eta gainera, horren inguruko berriazko eskaera aurkeztu zuen).

Kasu honetan, pertsona horrek libre utzi zuen lanpostua beste batzuek erreklamatzearen aukerari dagokionez, Hezkuntza Sailak soilik baieztatu du ur-jauzi efektua gauzatu ahal izango litzatekeela, baina ez du hori egiaztatzeko daturik ematen; beraz, ez dakigu lanpostu hori kexagileari adjudikatuko izan ez balitz, adjudikazio-egintza horretan beste bati esleituko ote zitzaien.

10. Hezkuntza Sailak esan zuen baita ere kexagileari adjudikatu zitzaien lanaldi erdiko lanpostua berak borondatez eskatu zuena zela eta, horrenbestez, Hezkuntza Sailaren arabera, ez dagokio 2023-2024 ikasturte osoan lanaldi osoko lanpostu bat betetzeko eskubidea.

Egiaz, lanaldi erdiko YYYY lanpostua kexagileak eskatu zuen bere eskarien hamabosgarren postuan. Hala eta guztiz ere, ez dugu ahaztu behar lehenengo





ordena-zenbakiarekin esleitutako eskaera XXXXX lanpostuari zegokiona zela, hain zuzen ere, lanpostua betetzeko baldintzak betetzen ez zituen bati adjudikatu eta azkenean libre geratu zena, eta kexagileak baino eskubide gutxiago zituen bati esleitu zitzaiona.

Horri lotuta, 2022ko ekainaren 16ko Aginduaren 13.1 artikuluan honako hau ezartzen da:

“(...) lehentasunezko esleipen-eskubidea ematen zaio ikastetxe berean espezialitate, lanaldi eta profil bereko lanpostu edo estaldura-premia batean irakasten zuen bitarteko langileari, adierazitako baldintzak betetzen ez dituen beste bitarteko langilearen aurretik.”

Aurrekarietan adierazi den bezala, kexagileak lanpostua bete zuen 2022-2023 ikasturtean eta, beraz, araudiak aitortu egiten zuen 2023-2024 ikasturteko adjudikazio-prozesuan esleitzeko zuen lehentasun-eskubidea.

Horren harira, lanaldi murriztuko eskaera esleitu izanak ezin du ahaztarazi aurretik azaldu dugun moduan jardun izan balitz lanaldi osoko lanpostua esleitu litzaiokeela eta, beraz, jardun zen moduaren ondorioz kalteak sufritu zituela.

11. Nahiz eta kexagileak bere eskaria Hezkuntza Sailean aurkeztu zuenean bideragarria izango litzatekeen lanpostuaren esleipena aldatzea, egia dena da ikasturtea hasi eta gero, antolamendu- zein pedagogia-arrazoiengatik ezin izango litzatekeela esleipena aldatu.

Gauzak horrela, ¹² urriaren 1eko 40/2015 Legearen 32. artikulua administrazio publikoen ondare-erantzukizuneko printzipioak jasotzen ditu. 1. apartatuak, Konstituzioaren 106.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, hauxe ezartzen du:

“Los particulares tendrán derecho a ser indemnizados por las Administraciones Públicas correspondientes, de toda lesión que sufran en cualquiera de sus bienes y derechos, siempre que la lesión sea consecuencia del funcionamiento normal o anormal de los servicios públicos salvo en los casos de fuerza mayor o de daños que el particular tenga el deber jurídico de soportar de acuerdo con la Ley.”

Sistemaren oinarriko printzipioetako bat da sortutako kaltea oso-osorik konpontzea; hala, Justizia Auzitegien askotariko epaiek baieztatzen dute indemnizazio osoaren printzipioa. Horren arabera, administrazio-jarduketak kaltetuari sortu dizkion kalteen baliokidea den erreparazio osoa eskatzen da.

¹² 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.



Horri jarraikiz, auzitegiek esan dute printzipio hori konstituzioak babestutako benetako babes judizialerako eskubidearen exigentzia logikoa ere badela, eta adierazi dute sortutako kaltea oso-osorik konpentsatzen denean bete egiten dela konstituzioak eskatzen duen moduan tutoretza efektiboa eta osoa izatearen baldintza.

Gauzak horrela, erakunde honek uste du kexa-espeditate honetan aztertutako egoera erreparatze aldera, kexagileari aitortu egin behar zaiola 2023-2024 ikasturte osoan lanaldi osoko lanpostua betetzeko duen eskubidea ordainsari, kotizazio eta gizarte-aurreikuspeneko ondorio guztiekin. Halaber, aitortu egin behar zaio baita ere 2024-2025 ikasturtean bere lehentasun-eskubidea egikaritzeko ikastetxea hautatzeko aukera CPI (...) IPI eta IES (...) BHI ikastetxeen artean; azken horretarako, ez da inolako oztopo izan behar araudiak orokorrean aukera hori ez aurreikustea.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Hezkuntza Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera

GOMENDIOA

Kexagileari aitortu diezaiola 2023-2024 ikasturte osoan lanaldi osoko lanpostu huts bat betetzeko duen eskubidea dagozkion ordainsari, kotizazio eta gizarte-aurreikuspeneko ondorio guztiekin, eta aitortu diezaiola baita ere 2024-2025 ikasturtean bere lehentasun-eskubidea egikaritzeko ikastetxea hautatzeko duen aukera.

